



SEGURAZKO UDALAK

Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak.

Definizioa:

- Bigarren semea edo alaba jaiotzea edo adoptatzea.
- Hirugarren edo hurrengo seme-alabak jaiotzea edo adoptatzea.
- Zenbait ume batera erditzea edo adoptatzea.

Non tramitatu:

Udaletxean . Gizarte Zerbitzuak. Asteazkenak 8:00-13:00 eta 15:00-17:30. Ostiralak 8:00-14:00.

Telf. 943 80 10 06

e-mail: gizarte.segura@udal.gipuzkoa.net

Aurkeztu beharreko agiriak:

LEHENENGO ESKAERA

- Eskatzaileen nortasuna egiaztatzen duten agirien fotokopia konpultsatuak, baita elkarbizitzako familia-unitatea osatzen duten 14 urtetik gorako pertsona guztien agirienak ere.
- Hirugarren interesatuaren datuen alta-fitxa, eskatzaileek sinatua eta dagokion banku-erakundeak zigilatua.
- Eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean erroldatuta daudela adierazten duen ziurtagiria, bizilekuan bizi diren pertsona guztien zerrenda eta guzti, dekretu honetako 4.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.
- Ume bateko edo bat baino gehiagoko erditzea izanez gero, laguntzaren kausa diren adingabeak eskatzaileen seme-alabatzat hartzen dituen familia-liburuaren fotokopia konpultsatua.
- Adopzioa izanez gero, adopzioa eratzen duen auto judizialaren fotokopia konpultsatua, nazioarteko adopzioko kasuetan salbu; izan ere, kasu horietan, Erregistro Zibil Zentralean inskribatu izanaren ziurtagiria erantsiko zaio, baldin eta adingabeen jatorrizko herrian indarrean dauden legeen arabera eraturako adopzioa bada, eta Espainiako agintariek emandako auto judizial irmoaren fotokopia konpultsatua, berriz, Espainian adoptatze aldera adingabearen jatorrizko herrian adopzio sinplea edo tutoretza eratu bada.
- Dagokion ezintasun-ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua, baldin eta laguntzaren kausa diren semeren edo alabaren batek ehuneko 33ko edo gehiagoko ezintasuna onartua badu.
- Eskatzaileen zinpeko aitortpena, beste edozein administrazio publikok gai eta helburu beragatik laguntzarik ematen ez diola agerian gera dadin. Horrelakorik jasoz gero, laguntzaren zenbatekoa eta administrazio laguntzailea jasoaraziko da. Eskatu badu, eta ebazpena emateke egonez gero, egoera hori ere jasoaraziko da.
- Eskatzaileen zinpeko aitortpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta bere organismo autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen baitan hasitako eta oraindik izapidetzen ari diren dirua itzultzeko edo zigorrak ezartzeko prozedurei buruzkoa.

Bestelakoak:

Udalak bitartekari lanak egiten ditu Eusko Jaurlaritzaren aurrean, berea baita eskuduntza. Beraz, Udalak ez du ardurarik azken ebazpenean, ez eta tramitazioan behar diren epeetan.

Gaiaren inguruko informazio gehiago, honako helbidean:

<http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r45->

[19041/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ayudas_hijos_2007/eu_0001/0001.html](http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r45-19041/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ayudas_hijos_2007/eu_0001/0001.html)